

**EUSKO JAURLARITZA**

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza  
*Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio  
Sanitarioko Zuzendaritza*



**GOBIERNO VASCO**

**DEPARTAMENTO DE SALUD**

Viceconsejería de Salud  
*Dirección de Planificación, Ordenación y  
Evaluación Sanitaria*

## **OSPITALEETAKO ESTADISTIKAREN DEFINIZIO ESKULIBURUA**

## OSPITALERATZE-AUKERA DUTEN OSASUN-ZENTRO ESPEZIALIZATUETAKO (C.1) DEFINIZIOEN ESKULIBURUA

AUREGOGOETAK.....	3
AZTERGAIAK.....	3
EREMUA .....	3
HELBURUAK .....	3
ADIERAZPEN-EGILEA.....	3
ESTADISTIKA BETETZEKO ARGIBIDEAK .....	4
IDENTIFIKAZIOA .....	4
IDENTIFIKAZIO-DATUEN ALDAKETA .....	4
EZAUGARRIAK .....	4
A. DATUAK.....	5
B. OSASUN-ARRETAKO ESKAINTZA .....	6
C. ZUZKIDURA .....	6
D. JARDUNEAN DEN ZUZKIDURA TEKNOLOGIKOA .....	8
E. LANGILEAK.....	8
F. PRESTAKUNTZA-ALDIAN DIREN LANGILEAK .....	12
G. ZENTROAK KONTRATATUTAKO ZERBITZUAK.....	13
H. OSPITALERATZE-ARLOKO JARDUERA .....	14
I. KIRURGIA-ARLOKO JARDUERA.....	17
J. OBSTETRIZIA-ARLOKO JARDUERA .....	18
K. EGUNEKO OSPITALEA .....	19
L. ETXEKO OSPITALIZAZIOA .....	19
M. KONTSULTEN ARLOKO JARDUERA .....	19
N. LARRIALDI-ZERBITZUKO JARDUERA .....	20
O. JARDUERA DIAGNOSTIKOA .....	21
P. BESTE JARDUERA-EREMU BATZUK.....	22
Q. PAZIENTEEN ERREGIMEN EKONOMIKOAREN ARABERAKO ARRETA-JARDUERA... 23	
R. EROSKETAK ETA GASTUAK .....	24
S. SALMENTAK ETA DIRU-SARRERAK, OSASUN-ARRETAKO FUNTZIOETAKOAK BARNE .....	29
T. AZTERGAI DEN URTEAN EGINDAKO INBERTSIOAK .....	31
ERANSKINAK .....	33

## DEFINIZIOEN ESKULIBURUA

### **AURREGOGOETAK**

Ospitaleei buruzko lehen estatistika 1972an egin zuten, elkarrekin, Estatistika Institutu Nazionalak eta Ospitale Koordinazioko Batzorde Nagusiak, “Estadística de Establecimientos Sanitarios con régimen de Internado” izenburupean. Gerora, 1983an, autonomia-erkidegoetako gobernuak ere zeregin horri lotu eta zentroetako datuak jasotzeari ekin zioten; 1984an, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren bidez, EAeri buruzko lehen estatistika egin zuen. Horixe izan zen, gainera, espainiar estatuko lehenbizikoa.

### **AZTERGAIK**

Erroldatzat jo daiteke estatistika, EAEko ospitale guztiak —publikoak zein pribatuak— aintzat hartzen baititu.

### **EREMUA**

Honako baldintza hau betetzen duten osasun-zentroei ezarriko zaie estatistika:

C.1 kategoriako ospitale-baimena izatea (zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimenak emateko oinarri orokorrak finkatzen dituen 2003ko urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan zehaztutako kategorien arabera). Halakoetan, bada, ospitaleratze-aukera duten zentroetarako galdeketa-eredua erabiliko da.

### **HELBURUAK**

Gaur egun EAEko ospitaleen egoera nolakoa den jakitea da ospitale-estatistikaren helburua; alegia, ospitaleak zer giza baliabide eta baliabide fisiko dituen, eta nolakoak diren osasun-arretako jarduna (alderdi guztiak aztertuta) eta horietan garatzen den jarduera ekonomikoa.

Badu, halaber, bigarren helburu bat ere, hain zuzen ere, nazioarteko, espainiar estatuko zein EAEko erakundeek eskatzen duten informazioa eragiketa estatistiko bakarrera ekartzea, informazioa biltzeko prozesua errazagoa izan dadin, bai denborari, bai bitarteko eta dokumentu estatistikoei dagokienez.

### **ADIERAZPEN-EGILEA**

Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen baimenak emateko oinarri orokorrak finkatzen dituen 2003ko urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuaren arabera, ospitale-kategoriako baimena duten zentroak izango dira adierazpen-egileak. Galdeketan, bada, ospitale horien mendeko zentro guztiei buruzko informazioa jaso behar da: baliabideak, zerbitzu-eskaintza, jarduna eta gastua —kontuan hartuta dena delako ospitalearekin kudeaketa bateratua eta aurrekontu bera duten zentroak jotzen direla ospitalearen mendeko zentrotzat—.

Ospitaleguneen edo ospitale-partzuergoen kasuan, ezinezkoa bada haien barruko zentroen jarduerari edo gastuei buruzko informazioa bereiztea, galdera-sorta bakarra bete behar da ospitalegunee edo partzuergo guztirako, betiere zehatz-mehatz zehaztuta multzo horretako zer zentrok eman duten informazioa.

Nolanahi den ere, ahal dela, ospitaleen jatorrizko izaera aintzat hartzen saiatu behar da, baita ospitale horiek ospitalegune, partzuergo edo sareren baten kide bilakatu badira ere.

## ESTADÍSTIKA BETETZEKO ARGIBIDEAK

- 1.- Galdera-sortari erantzuten hasi aurretik, haren atal bakoitzari dagozkion definizioak irakurtzea komeni da.
- 2.- Kontu ekonomikoetan balio negatiborik izanez gero, egokiro adierazi eta azaldu behar dira.
- 3.- Ez da laukirik erabili behar berariaz eskatzen diren datuez bestelakorik gehitzeko. Galdera-sortan jaso ez den daturen bat aipatu beharrekoa dela joz gero, “gertakariak eta oharrak” izeneko atala erabili horretarako.

## IDENTIFIKAZIOA

Pdf bakoitzak beteta izan behar ditu, aurretiaz, establezimendua (helburu dugun ospitale-zentroa) eta haren titularra edo enpresa (establezimenduaren jabe den pertsona fisikoa edo juridikoa) identifikatzeko datuak: izena, helbidea, telefonoa eta identifikaziorako beste zenbait aldagai. Datu horiek guztiak Ospitale Zentroetako Direktoriotik jasotzen dira.

## IDENTIFIKAZIO-DATUEN ALDAKETA

Identifikazio-datuetan aldaketarik gertatuz gero, lauki honetan jakinarazi behar da.

## EZAUGARRIAK

- **Zentroaren kodea.- Zentroaren kodeak zazpi digitu eta kontrol-digitu bat ditu.**  
Zazpi digitu horietatik, lehenengo biak lurralde historikoari dagozkio; hurrengo hirurak, udalerriari, eta azken biak, hurrenkera-zenbakiari.
- **Helburua.-** Zentroko arreta-zerbitzuaren helburua zein den ematen du aditzera. Establezimenduko jarduera eta baliabide gehienak lehenetsuz zer espezialitate medikotara bideratzen diren adierazi behar da. Oro har, erabiltzen diren oheen % 65etik gora hartzen dituen espezialitatea jotzen da zentroaren helburutzat.
- **Establezimenduaren ardura duen organismo edo entitate juridikoa.-** Establezimenduaren agintea edo jurisdikzio hierarkikoa zein funtzionala duen gertueneko pertsona fisikoa edo juridikoa. Hona hemen estatistika honetan jasotako ospitale-zentroen titulartasun juridikoa:
- **Osasun-eskualdea.-** Zentroa fisikoki zer lurralde- eta administrazio-mugapetan dagoen.  
Kode horretako lehen digitua eremuari dagokio; bigarrena, berriz, hurrenkera-zenbakia da.

Administrazioak honako datu hauek bete behar ditu: zentroaren kodea, helburua, haren ardura duen organismo edo entitate juridikoa eta osasun-eskualdea.

- **Osasun Sailarekin duen hitzarmena.** Ospitale pribatuaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren artean zer hitzarmen dagoen, EAEko osasun-sistemako pazienteei —hots, jendartean “Osakidetzako paziente esaten” zaien horiei— osasun-laguntza

emateko. Ospitaleratzeko hitzarmena izan daiteke (ospitaleratze medikoa, kirurgikoa eta abar) edo diagnosi-teknika zehatz batzuetarako (erresonantzia magnetikoak, gammagrafiak eta abar), edo teknika terapeutiko jakin batzuetarako (hemodialisia, gorputz kanpoko litotrizia, erradioterapia eta abar) baino ez.

**Galdera sorta betetzeko modua:** Gurutze batez adierazi behar da zer hitzarmen-mota duen zentroak.

- **Jardunean hasi zen urtea.** Zentroa zer urtetan jarri zen abian edo, jarduna erroetik aldatu badu, aldaketa hori zer urtetan izan zen.
- **Forma juridikoa.** Zuzenbidean onartutako edozein erakunderen bidez, osasun-zentroak eta -zerbitzuak zuzenean edo zeharka kudeatzeko zer antolamendu-mota duen.
  1. Zuzeneko kudeaketa (ohikoa Gizarte Segurantzaren osasun-zerbitzuko erakundeetan)
  2. Erakunde publikoa
  3. Enpresa publikoa
  4. Fundazio publikoa
  5. Partzuergoa
  6. Emakida
  7. Kooperatiba
  8. Fundazio pribatua
  9. Merkataritza-sozietatea
  10. Banako sozietatea
  11. Ondasun-erkidegoa
  12. Beste batzuk. Trafiko juridikoan hautatzen den legezko edozein sozietate-mota.

Osasun-zentroari dagokion forma juridikoa hautatu behar da.

*Estatistikak urtez urtekoa izaten jarraitzen du, nahiz eta moduluetan edo hiruhilekoetan oinarritutako adierazpen-sistema ezarri den. Horrenbestez, hirugarren hiruhilekoa markatu behar da.*

Estatistika zer urteri dagokion adierazi behar da.

### **A. ESTABLEZIMENDUARI BURUZKO DATUAK**

**Probintzia eta udalerrria:** establezimenduaren kokapena adierazi behar da.

**Eremu-ospitalea:** ospitalea eremu-ospitalea den adierazi behar da.

**Eremuko populazioa:** eremuko ospitaleek bete beharrekoa da, eta aztergai den urteko abenduaren 31n ospitalearen mendeko populazio **babestua** zenbatekoa den adierazi behar du, dagokion autonomia-erkidegoaren datuak —osasun-txartelen gaineko (OTI) datu-basetik jasotakoak— oinarri hartuta.

**Eremuko kodea:** eremuko ospitaleek bakarrik bete behar dute.

**Osasun-eremua** (sektorea, departamentua eta abar): autonomia-erkidego bakoitzean eta Ceuta eta Melillako hirietan ezarritako lurralde-mugapea, bakoitzak bere osasun-zerbitzuari dagozkion zentroak modu bateratuan kudeatze aldera.

**Espezialitateak dituzten zentroak:** Ospitaleak espezialitate-zentrorik baduen adierazi behar da (*osasan-zenetroak ospitale baten mendekoak dira, baldin eta haren aurrekontu bera badute*), eta, halakorik izanez gero, zenbat espezialitate-zentro dituen.

**Irakaskuntzarako egiaztapena:** Zentroak graduondoko osasan-prestakuntza espezializatua emateko egiaztapena baduen adierazi behar da. Horretarako, e idatzi, egiaztapenik ez badu; egiaztapena badu, **b**.

### *OSPITALEAREN MENDEKO ESPEZIALITATE-ZENTROAK*

Zentro bat ospitale baten mende dagoela jotzen da biek aurrekontu bera badute. Ospitaleari lotutako zentroak zenbat diren adierazi behar da, eta haiei buruzko datuak jaso.

Zentroak OSPITALEGUNE edo PARTZUERGO baten kide badira, guno edo partzuergo horretako zentroen izena, helbidea eta kodea adierazi behar dira.

OSPITALEGUNEAREN KODEA.- Zentroaren identifikazio-kodea ospitale bakoitzari ezarritako zenbakia da, eta zentro hori identifikatzeko balio du, nahiz eta Ospitaleen Espainiako Katalogoan beste izen bat izan dezakeen.

PARTZUERGOAREN KODEA.- Partzuergoa ospitaleratze-aukera duten zenbait zentrok osatuta badago eta galdera-sortari guztiek batera erantzun behar badiote, Osasun eta Kontsumo Ministerioak kode bat ezarri behar die, eginkizun estatistikoetarako soilik.

## **B. OSASUN-ARRETAKE ESKAINTZA**

Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen baimenak emateko oinarri orokorrak finkatzen dituen 2003ko urriaren 10eko 1277/2003 ERREGE DEKRETUAREN arabera zentroak zer unitate funtzional dituen baimenduta adierazi behar da.

## **C. ZUZKIDURA**

Honako hauek bereizi behar dira:

**Instalatua.**- Zentroak abenduaren 31n zer-nolako zuzkidura duen. Zuzkidura horrek, betiere, funtzionatzeko moduan egon behar du, nahiz eta une horretan abian egon ez, beharrezko langileak edo ekipamendua ez dituelako, obrak direla-eta martxan jarri ezin delako eta abar. Horrenbestez, ohe osagarriak ez dira aintzat hartzen.

**Abian.**- Urte horretan egiazki jardunean izan den zuzkidura. Abian izan den zuzkiduraren urteko batezbestekoa hartzen da aintzat, zuzkidura hori zenbat erabili den edo nolako okupazioa izan duen kontuan izan gabe. Ez dira hor sartzen ohe osagarriak, alegia, zentroaren zuzkidura finkokoak ez badira ere arreta-gainkargako egoera berezietan erabili izan diren oheak.

**Oheak.**- Ospitaleratutako pazienteak etengabe artatzeko erabiltzen direnak. Atal honetakoak dira inkubagailuak (ez, ordea, garraiorako inkubagailuak), pediatriaguneetako sehaskak eta zainketa berezietarako oheak (zainketa intentsiboa, zainketa koronarioa, erredura-zainketa eta abar).

Honako hauek, aldiz, ez dira ohetzat hartzen: larrialdi-zerbitzuko behaketarako oheak, kirurgia egin ondoko bizkortze-unitatekoak, hemodialisi anbulatoriorako erabiltzen direnak, laguntzaileen oheak, anestesia aurretiko indukziorako oheak, miaketa berezietarako oheak (endoskopia, laborategia eta abar), **eguneko ospitalerako erabiltzen direnak**, osasun-zentroko langileek erabiltzen dituztenak, ohe gehigarriak, ohe osagarriak eta jaioberri normalentzat erabiltzen diren sehaskak.

**Inkubagailuak.**- Inkubagailu finkoen kopurua, aurretik oheen atalean jasota egon arren.

**Erditze-gelak.**- Bagina bidezko erditzeetarako erabiltzen diren eta funtzio horretarako bereziki hornituta dauden gelak.

**Ebakuntza-gela erabatekoak.**- Ebakuntza-mahaia duten gelak, gaixoari ebakuntza egiteko eta laguntza kirurgikoa emateko erabiltzen direnak. Gelen ezaugarriek eta ekipamenduak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Argiztapen doigarria izan behar dute, lan zailak egiteko adinako indarrarekin.
2. Baldintza aseptiko egokiak bete behar dituzte: tresna esterilak eta langileek arropak aldatzeko guneak, besteak beste.
3. Anestesia emateko aukera eskaini behar dute.

Ez dira ebakuntza-gelatzat jotzen:

- a) Erditze-gelak.
- b) Hortzak erazteko edo hortzetako aulkian egiten diren gainerako kirurgia-jardueretarako gelak.
- c) Erradiologia-gelak.
- d) Sendaketa-gelak.

Zentroan dauden ebakuntza-gela guztiak zenbatu behar dira, **eguneko ospitale kirurgikoko** unitate autonomoetakoak barne (antolamendu bereizia eta ospitalearen gainerako atalekin mugaketa arkitektonikoa duten unitateak jotzen dira eguneko ospitale kirurgikoko unitate autonomotzat).

**Hemodinamikako gelak.**- Hemodinamikako gelak: hemodinamian eskarmentua duen mediku espezialista baten erantzukizunpean, helburu diagnostikoz eta/edo terapeutikoz prozesu baskular edo kardiologiko interbentzionistak egiteko gelak. Halako zenbat gela dauden adierazi behar da.

**Kanpoko kontsulten gelak.**- Erregimen anbulatorioan dauden pazienteei arreta emateko gelak, beren-beregi larrialdietarako erabiltzen direnak salbu.

**X izpien gela arruntak.**- Erradiodiagnostiko sinple, dinamiko, kontrastedun zein kontraste gabeko miaketa arruntak egiteko berariaz erabiltzen diren gelak. Irudia biziagotzeko euskarria eta telegintea duten erradiologia-gelak ere barne hartzen ditu.

**Eguneko ospitaleko postuak.**- Ospitaleratu beharrik gabe eguneko arreta berezia behar dutenei tratamendua emateko, diagnostikoa edo segimendua egiteko erabiltzen diren postu berezieren kopurua.

Honako hauek bereizi behar dira:

- Eguneko ospitale medikoa (onko-hematologikoa barne), eguneko tratamenduak emateko
- Eguneko ospitale psikiatrikoa
- Eguneko ospitale geriatrikoa
- Eguneko ospitale kirurgikoa, kirurgia handi anbulatorioko ebakuntza egin behar zaien pazienteentzat. Antolamenduaren arabera, honako hauek bereizi behar dira:
  - Antolamendu bakar modura diharduten unitate bateratuetako postuak, ospitaleko gainerako atalekin baliabideak partekatzen dituztenak — ebakuntza-gela, besteak beste—.
  - Unitate berezia eta ospitalearen diseinuan arkitektonikoki bakartua. Unitateak zenbat postu eta ebakuntza-gela dituen adierazi behar da.

#### **D. JARDUNEAN DEN ZUZKIDURA TEKNOLOGIKOA**

Ospitalean eta haren espezialitate-zentroetan dauden **ekipamenduak** dira. Ekipamendu horiek, abian den urteko abenduaren 31n, ospitalerako lanean dihardute nagusiki, zentroaren jabetzapekoak izan zein ez eta kanpoko enpresek edo partikularrek kudeatuta egon zein ez.

**Ospitalean.**- Ospitalean dagoen zuzkidura.

**Espezialitate-zentroetan.**- Ospitalearen mendeko espezialitate-zentroetan dagoen zuzkidura.

**Kontzertatua.**- Aurreko atalen baturaren guztizkotik (ospitalea gehi espezialitate-zentroak) Espainiako Osasun Sistemarekin (SNS) zenbat dauden itunduta adierazi behar da.

Honako hauek bereizi behar dira:

- Azeleragailu lineala
- Angiografo digitala
- Telekobaltoterapiako ponpak
- Hezur-dentsitometro garraiaezinak
- Hemodialisi-ekipamenduak (hemofiltrazio-ekipamenduak kanpo)
- Ordenagailu bidezko tomografia axialeko ekipamenduak, OTA
- Positroien igorpen bidezko tomografia (PET) eta PET-TC egiteko ekipamenduak
- Erresonantzia magnetikoko ekipamenduak
- Gammakamera
- Talka-uhinen bidezko litotriptorea
- Mamografoak
- SPECT(\*). SPECTa duten gammakamera-gailuak barne.
- Beste batzuk: garrantzi berezia duela jotzen den bestelako zuzkidura teknologiko oro ere aipatu behar da.

#### **E. LANGILEAK**

E koadroa bete beharrekoa da, beti.



Lauki hori betetzeko, zentroan abenduaren 31n lanean diharduten langileak hartu behar dira kontuan, ez langileen zerrendan ageri diren lanpostuak. Ospitalean lanean diharduten langileez gain, ospitalearen mendeko beste zentro batzuetan lanaldi osoan edo lanaldi partzialean ari direnak ere aintzat hartu behar dira, betiere zentro horrek ordaintzen badie ordainsaria.

Honako zehaztapen hauek hartu behar dira kontuan:

1. Beste erakunde bati dagozkion eta zerbitzu-eginkizunetan dauden langileak ez dira langile efektibotzat jo behar.
2. Langileren bati gaixotasunagatik edo amatasun-bajagatik lanerako ezintasun iragankorrean dagoelako ordezkoa jarri bazaio, langile hori ez da langile efektibotzat hartu behar; bai, ordea, haren ordezeko langilea.
3. Eszedentzian diren langileak ez dira langile efektibotzat hartu behar.
4. Zentroan aldi baterako kontratuarekin edo zerbitzu-eginkizunetan lanean ari diren langileak langile efektibotzat hartu behar dira.

Langile-kategoriak baztertzailleak dira; alegia, pertsona bakoitza talde batean bakarrik egon daiteke. Titulazioren bat zehazten den ataletan (medikuak, medikuak ez diren goi-mailako beste tituludun batzuk, OLT eta EUD eta abar), tituluaren arabera lanpostuetan diharduten pertsonak soilik hartu behar dira kontuan. Esate baterako, Psikologian lizentziatutako eta Erizaintzan diplomatutako pertsona batek erizain-lanpostuan badihardu, erizaintzat soilik hartu behar da.

Atal honetan ez dira sartu behar zentroak kontratatutako zerbitzu-enpresetako langileak (garbiketa-zerbitzukoak, ikuzketa-zerbitzukoak eta abar).

**Zentroak kontratatutakoak.**- Kontratu bidez zentroan lanean diharduten langileak dira: funtzionarioak, lan-kontratudunak, estatutupeko langileak edo bestelakoak. Dagozkion osasun-langileak ere hor sartzen dira.

Sektore publikoko zentroetan, berriz, ospitale-zentroaren mendeko espezialitate-zentroetan lan egiten duten langileak kontabilizatu behar dira.

**Lanaldi osoa.**- Lanaldi osoan diharduten langileak, nahiz eta astean guztira 36 ordu baino gutxiago egin.

**Lanaldi partziala.**- Lanaldi partzialean lan egiten duten langileak. INGESAren edo osasun-zerbitzuen mendeko zentroak badira, langile mediko ez-hierarkizatuak ere atal horretan sartu behar dira, betiere soldata zentroaren aurrekontuen kontura ordaintzen bazaie.

**Ohiko laguntzailea.**- Zentroarekin lan-harremanik ez badute ere beste modu bateko kontratu-harremanen bidez zentroan diharduten langileak dira: mediku-aholkulariak, zerbitzu-kontratuak dituztenak eta hitzarmenen bidez diharduten beste zentro batzuetako langileak, betiere jarduera horietan lanaldi osoaren edo lanaldi partzialaren pareko lanaldia egiten ez badute, bestela aurreko ataletan sartuko lirateke eta.

**Emakumeak, guztira.**- Kategoria bakoitzaren guztizkotik emakumeak zenbat diren zehaztu behar da.

## OSASUN-LANGILEAK

– OSASUN-LANGILE FAKULTATIBOAK.- Medikuntza eta Kirurgian lizentziadunak, abenduaren 31n zentroan lanean dihardutenak, zeinahi dela ere haien lanpostua (zerbitzuburu, saileko buru eta abar). Atal honetan ez dira sartzen ez barruko mediku egoiliarak, ez bekadunak, ezta laguntzaile boluntarioak ere. Galdera-sortan jasotako espezialitateen arabera, honako arlo hauek bereizi behar dira:

Anestesiologia eta bizkortzea  
 Digestio-aparatua  
 Kardiologia  
 Neurologia  
 Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa  
 Medikuntza eta gainerako espezialitate medikoak  
**ESPEZIALITATE MEDIKOEN GUZTIZKO PARTZIALA.** Aipatu berri diren espezialitate medikoen batukaria adierazi behar da.

Angiologia eta kirurgia baskularra  
 Kirurgia kardiobaskularra  
 Kirurgia orokorra eta digestio aparatuko kirurgia  
 Ahoko eta aurpegi-masailtako kirurgia  
 Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia  
 Kirurgia pediatrikoa  
 Kirurgia plastiko-estetikoa eta konpontzailea  
 Kirurgia torazikoa  
 Dermatologia mediko-kirurgikoa  
 Neurokirurgia  
 Obstetrizia eta ginekologia  
 Oftalmologia  
 Otorrinolaringologia  
 Urologia  
**KIRURGIA-ESPEZIALITATEEN GUZTIZKO PARTZIALA.** Aipatu ditugun kirurgia-espezialitateen batukaria adierazi behar da.

Pediatria  
 Medikuntza intentsiboa  
 Psikiatria  
 Zerbitzu zentralak  
 Larrialdiak – Guardiari: larrialdi-zerbitzuan soilik lanean diharduten mediku fakultatiboak.

MEDIKUAK, GUZTIRA.- Espezialitate mediko guztiak, kirurgia-espezialitateak, pediatria, medikuntza intentsiboa, psikiatria, zerbitzu zentralak eta larrialdi - guardia guztiak sartu eta haien guztizko batukaria adierazi behar da.

Farmazialariak.- **Farmaziako unitatean** lanean dihardutenak soilik adierazi behar dira. Zentroko beste unitate batzuetan lanean diharduten farmazialariak “Goi-mailako beste tituludun batzuk” izeneko atalean sartu behar dira. Farmaziako unitatean lan egiten duten medikuak, berriz, zerbitzu zentraletako medikuen sailean sartu behar dira.

Osasun-arloko goi-mailako beste tituludun batzuk (osasun-funtzioren bat betetzen dutenak).- Atal honen barruan sartu behar dira aurreko ataletan (medikuak eta farmazia-zerbitzuko farmazialariak) aipatu ez diren goi-mailako tituludun osasun-profesionalak, betiere abenduaren 31n zentroan osasun-funtzioren bat betetzen badihardute (laborategian, esaterako): odontologoak, psikologoak, fisikariak, farmazialariak, biologoak, kimikariak eta abar. Atal honetatik kanpo utzi behar dira egoiliar modura dauden tituludunak, bekadunak, laguntzaile boluntarioak, administrazioko langileak, ekipamendua mantentzeaz arduratzen direnak eta abar.

**OSASUN-LANGILE EZ-FAKULTATIBOAK.**- Maila ertaineko titulua duten osasun-profesionalak dira.

- EUD (erizainak).- Unibertsitate-diplomatura duten erizaintza-langileak, abenduaren 31n lanean dihardutenak, lanpostua zeinahi dutela ere (gainbegiralea eta abar). Erizain espezialistak —titulazioari dagozkion lanpostuak dituztenak— ez dira atal honetan sartu behar.
- Erizaintza obstetrikoginekologikoa (emaginak).- Emagin titulua edo Erizaintza Obstetrikoginekologikoaren espezialitateko titulua duten langileak, betiere titulazioari dagokion lanpostua badute.
- Beste erizain espezialista batzuk: buru-osasuneko espezialitatean erizain titulua duten erizaintzako langileak (beste espezialitate batzuk prestatze-bidean dira: pediatria, geriatria, zainketa mediko-kirurgikoak, lana eta familia, eta komunitatea), betiere haien titulazioari dagokion lanpostuan badihardute. Emaginak atal honetatik kanpo daude.
- Fisioterapeutak.- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako fisioterapeuta-tituludun langileak, titulazioari dagokion lanpostua dutenak.
- Terapeuta okupazionalak.- Terapeuta okupazionalaren tituludun langileak (maila ertaina), titulazioari dagokion lanpostua dutenak.
- Logopedak.- Logopeda-tituludun langileak (maila ertaina), titulazioari dagokion lanpostua dutenak.

Maila ertaineko beste tituludun batzuk (osasun-funtzioren bat betetzen dutenak).- Maila ertaineko beste tituludun batzuk —arestian aipatutako erizainak kanpoan utzita—, baldin eta zentroan osasun-funtzioren bat betetzen badute —laborategian, esaterako—, lanpostua zeinahi dutela ere.

### Osasun-teknikariak

- Maila ertaina: erizaintzako zaintza osagarriak eta farmazia (Lanbide Heziketako maila ertaina) (546/95 ED, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarena, titulu hori eta haren barruko gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena).
- Goi-maila: Goi Mailako Lanbide Heziketa (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1995eko zenbait errege-dekreturen bidez arautua), osasun-arreta ematera bideratua: diagnostikorako irudia, diagnostiko klinikoko laborategia, medikuntza nuklearra, erradioterapia, dietetika eta abar).

Beste batzuk.- Osasun-funtzioren bat betetzen duten eta aurreko ataletan sartu ez diren langileak. (Zehaztu).

## OSASUN-ARLOTIK KANPOKO LANGILEAK

- Zuzendaritza eta kudeaketa.- Zentroa zuzentzeko eta/edo kudeatzeko lanetan esklusiboki diharduten goi-mailako edo maila ertaineko tituludun langileak, titulua osasun-arlokoa izan arren. (Administrazio-funtzioa betetzen duten talde teknikoak eta kudeaketa-taldeak ere sartzen dira). Aurretiaz esan dugunez, atal honetan ageri direnak ezin dira gainerakoetan sartu.

Demagun, adibidez, mediku batek zentroan osasun-arretako zerbitzua ematen duela eta, horrez gain, zuzendaritza- edo administrazio-lanak ere egiten dituela. Pertsona hori, bada, medikuen atalean sartu behar da, ez atal honetan.

- Gizarte-langileak.

- Ofiziozko langileak.- Ofiziozko langile kualifikatuak eta ez-kualifikatuak hartzen ditu.

- Administrariak.-

- Beste batzuk.- Aurreko ataletan sartu ez diren osasun-arlotik kanpoko langileak. ***Zelariak barne***.

## F. PRESTAKUNTZA-ALDIAN DIREN LANGILEAK

Barruko mediku egoiliarak (BAME).- Espezialitateren bateko prestakuntza espezializatuko programa betetzen dihardutenak:

Alergologia  
 Análisi klinikoak  
 Anatomia patologikoa  
 Anestesiologia eta bizkortzea  
 Angiologia eta kirurgia baskularra  
 Digestio-aparatua  
 Biokimika klinikoa  
 Kardiologia  
 Kirurgia kardiobaskularra  
 Kirurgia orokorra eta digestio-aparatuko kirurgia  
 Ahoko eta aurpegi-masailtako kirurgia  
 Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia  
 Kirurgia pediatrikoa  
 Kirurgia plastiko-estetikoa eta konpontzailea  
 Kirurgia torazikoa  
 Dermatologia Mediko-kirurgikoa eta benereologia  
 Endokrinologia eta nutrizioa  
 Farmakologia klinikoa  
 Geriatria  
 Hematologia eta hemoterapia  
 Immunologia  
 Laneko medikuntza  
 Familiako eta komunitateko medikuntza  
 Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa  
 Medikuntza intentsiboa

Barne-medikuntza  
 Medikuntza nuklearra  
 Prebentzio-medikuntza eta osasun publikoa  
 Mikrobiologia kliniko eta parasitologia  
 Nefrologia  
 Neumologia  
 Neurokirurgia  
 Neurofisiologia kliniko  
 Neurologia  
 Obstetrizia eta ginekologia  
 Oftalmologia  
 Onkologia medikoa  
 Onkologia erradioterapikoa  
 Otorrinolaringologia  
 Pediatria eta haren arlo espezifikoak  
 Psikiatria  
 Erradiodiagnostikoa  
 Erreumatologia  
 Urologia

Erizain egoiliarak (BAEE).- Erizain-espezialitateetan prestatzeko programetan parte hartzen duten langileak. (buruko osasuna, zainketa mediko-kirurgikoak, lana, familia eta komunitatea, geriatria, obstetrizia – ginekologia eta pediatria). Erizaintzako beste espezialitate batzuk abian jarri ahala, galdetegian jaso behar dira.

Barruko beste egoiliar batzuk.- Egoiliarak prestatzeko programako beste goi-tituludun batzuk: farmazialariak (BAFE), biologoak (BABE), kimikariak (BAKE), fisikariak (BFE) eta psikologo klinikoak (BAPE), dagozkien ministerio-aginduetan arautuak.

Graduondoko prestakuntza-programetan diharduten bestelako langileak.- Betiere zentroarekin harremanen bat badute eta egiten duten lanaren truke ordainsariren bat jasotzen badute.

Abian den urteko abenduaren 31n kontratua duten langileak guztira zenbat diren adierazi behar da beti; orobat, guztizko horretatik emakumeak zenbat diren ere jaso behar da.

## **G. ZENTROAK KONTRATATUKO ZERBITZUAK**

Zentroak laguntza-zerbitzuak jasotzeko kanpoko enpresaren bat kontratatua duen adierazi behar da. Zerbitzu hauek sartzen dira:

OSASUN-ARRETAKO ZERBITZUAK: laborategia, irudizko diagnostikoa, anatomia patologikoa, dialisia, esterilizazioa, errehabilitazioa eta beste batzuk (aurreko ataletan jaso ez den osasun-arretako zerbitzuren bat kontratatu bada).

OSASUN-ARRETARI EZ DAGOZKION ZERBITZUAK: sukaldaritza eta/edo elikadura, ikuzketa-zerbitzua, garbiketa, mantentze-lanak, segurtasuna eta beste batzuk (aurreko ataletan jaso ez den zerbitzuren bat kontratatu bada).

Osasun-zentroen jarduera zehatzekin zuzeneko loturarik ez duten zerbitzuak ez dira sartu behar: kafetegia, loradenda, prentsa, tabakoa, opariak eta abar.

## **H. OSPITALERATZE-ARLOKO JARDUERA**

Atal honetan osasun-zentroak ematen duen osasun-arretako zerbitzuaren barruko arloetan garatzen diren jarduerak jasotzen dira. Erabiltzen diren oheei dagokienez, urte osoan jarduera guztietan erabili den batez besteko kopurua adierazi behar da. Gainerako ataletan, berriz, urteko guztizkoa adierazi behar da.

Erabiltzen diren oheak.- Urte horretan egiazki erabili den ohe-zuzkidura. Erabili den ohe-zuzkiduraren urteko batezbestekoa hartzen da aintzat, zenbateraino erabili diren edo nolako okupazioa izan duten alde batera utzita. Ohe osagarriak atal honetatik kanpo daude.

Demagun, adibidez, ospitale batek gorabehera hauek izan dituela ohe-kopuruan:

90 egun: 100 ohe (9.000)  
 91 egun: 120 ohe (10.920)  
 61 egun: 60 ohe (3.660)  
 123 egun: 90 ohe (11.070)

**Guztira: 34.650 ohe/365 egun = 94,93 ? 95**

Osasun-arretako jarduera bakoitzeko erabiltzen diren oheen batezbestekoa da jaso beharreko datua.

Horretarako, osasun-arretako zerbitzu edo jarduera bakoitzak ohe-kopuru jakin bat izan behar du esleitua.

Osasun-arretako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ez badago ohe-kopuru jakin bat esleituta, urte horretako erabileraren arabera egin behar da kalkulua.

Baturak ez du izan behar zuzkiduraren laukian adierazitako oheen guztizkoa baino handiagoa.

Eragindako egonaldiak.- Estatistika honen helburuetarako, hau adierazi nahi du “egonaldi” hitzak: osasun-zentroan igarotako gaualdi bakoitza gehi jatordu nagusi batera arteko denbora (barkaria edo afaria). Dena den, zentroak errolda-ordua badarabil irizpidetzat, mugaketa hori ere erabili ahal da, bereizgarri horren berri emanda, betiere. Ospitaleratuta egon diren gaixo guztiek urte horretan eragindako egonaldiak hartu behar dira aintzat, estatistikak oinarri hartutako urteko urtarrilaren 1a baino lehenago ospitaleratutako pazienteek eragindakoak barne.

Paziente anbulatorioen dialisi-saioak edo kirurgia handi anbulatorioa ez da egonalditzat hartu behar. Era berean, bizkortze-unitateetan, trantsizio-unitateetan, behaketa-unitatean, larrialdietan eta abarretan emandako denbora, oro har, ez da egonalditzat jotzen. Salbuespen modura, unitate horietako oheetan egonaldiak maiz egoten badira, “Beste batzuk” atalean eman behar da horien berri.

Inoiz edo behin, egonaldiak bi zerbitzutan bikoiztu daitezke, horietako batean ohe-erreserba egin bada.

Behin-betiko altak.- Behin-betiko altatzat jotzen da ospitaleratutako gaixoak osasun-zentroko ospitaleratze-ohea uzten dueneko, ospitaletik irteteko modua (beste zentro batera joatea, borondatezko alta hartzea, ihes egitea eta abar) eta pazientearen egoera zeinahi direla ere (sendaketa, hobekuntza, exitusa eta abar).

Urte horretan dagokion zerbitzuan egon diren alta guztiak jaso behar dira.

Gaixoa osatu edo hobetu egin delako.- Gaixoak osatu egin direlako edo hoberantz egin dutelako medikuaren aginduz hartutako ohiko altak. Pazienteak ospitale ez diren zentroetara —gutxieneko zainketako edo egonaldi luzeko zentroetara (egoitza geriatrikoetara eta abar)— eramaten direnean ere, atal honen barruan jaso behar da alta horien berri.

Beste ospitale batera eraman direlako.- Pazienteak diagnostikoa egiteko edo/eta tratamendua emateko beste ospitale batera eramaten direnean sortutako altak. Pazientea ospitalegune bereko zentro batetik bestera eramaten bada, ez da halakotzat jo behar.

Pazientea hil egin delako.- Pazientea hil egin delako sortutako alta.

Beste arrazoi batzuegatik.- Aurreko sailkapenean aintzat hartu ez diren altak.

“Zerbitzu arteko” lekualdatzeak.- Bereiz jaso behar dira. Pazientea osasun-zentro bereko beste zerbitzu batera lekualdatzean sortutakoak dira. Ospitaleguneen kasuan, pazientea gune bereko zentro batetik bestera eramateko lekualdatzeak ere atal honen barruan sartzen dira.

Medikuntza eta espezialitate medikoak.- Medikuntzari eta haren espezialitateei dagozkie: Barne medikuntza, alergologia, kardiologia, digestio-aparatua, endokrinologia, geriatría, hematologia, nefrologia, neumologia, neurologia, onkologia (medikoa eta erradioterapikoa) eta erreumatologia.

Kirurgia eta espezialitate kirurgikoak.- Kirurgiari eta haren espezialitateei dagozkie: kirurgia orokorra eta digestio-aparatuko kirurgia, kirurgia kardiobaskularra, aurpegi-masailetakoa kirurgia, neurokirurgia, kirurgia plastikoa eta konpontzailea, kirurgia torazikoa, urologia, angiologia eta kirurgia baskularra, oftalmologia, otorrinolaringologia, dermatologia mediko-kirurgikoa eta abar.

Honako espezialitate hauek ez dira aurreko atal horretan sartu behar:

kirurgia ortopedikoa eta traumatologia.- kirurgia ortopedikoko eta traumatologiako espezialitateari dagokio.

Obstetrizia eta ginekologia.- Obstetriziako eta ginekologiako espezialitateari dagokio.

Pediatria.- Pediatria-zerbitzuetako jarduera. Kirurgia pediatríkoa barne.

Neonatologia.- Jaioberri gaixoari arreta emateko zerbitzua (jaiotzetik lehen hilabetea bete bitarteko adina duten haurrak jotzen dira jaioberrizat, nahiz eta zenbaitetan adin horretatik gora ere luzatu daitekeen neonatologia-unitateko egonaldia). Inkubagailu finkoak eta patologiaren bat duten jaioberrientzako sehaskak soilik hartu behar dira kontuan; ez, beraz, jaioberri normalentzako sehaskak.

Errehabilitazioa.- Ohez hornitutako unitatea da, errehabilitazioa behar duten gaixoentzat soilik. Ez du errehabilitazioa psikikoa barne hartzen.

Medikuntza intentsiboa.- Zainketa eta monitorizazio intentsiboa behar duten pazienteei arreta emateko zerbitzua, bitarteko tekniko aproposalaz eta langile espezializatuz hornitua. Xehatu egin behar da, zerbitzu bereiziak baldin badaude:

Zainketa intentsiboetako unitatea (ZIU).- Zainketa eta monitorizazio intentsiboa behar duten gaixoei arreta emateko unitatea. Osasun-zentroan medikuntza intentsiboko beste unitate bereizi batzuk badaude —hala nola unitate koronarioa, erredura-unitatea edo jaioberrientzako zainketa intentsiboa—, dagokien atalean adierazi behar da horien jarduera. **Ez ditu barne hartzen ez kirurgia osteko esnatze-unitatea, ez bizkortze-unitatea.**

Unitate koronarioa.- Prozesu koronario akutuak dituzten pazienteak zaintzeko berriazko unitatea da, eta arlo horretan espezializatutako langileak ditu (ZIUtik bereizita badago, betiere).

Jaioberrientzako zainketa intentsiboa.- Zainketa eta monitorizazio intentsiboa eskatzen duten jaioberri patologikoei arreta emateko unitatea da (jarduera hori bereizita badago, betiere).

Erredura-unitatea.- Erredura larriak eta oso larriak dituzten pazienteei arreta emateko unitatea da, eta arlo horretan espezializatutako langileak eta bitarteko material egokiak ditu (jarduera hori bereizita badago, betiere).

Egonaldi luzea.- Prozesu kronikoak dituzten eta batik bat unitate berezietan edo gaixo horiei berriaz zuzendutako osasun-zentroetan erizaintzako zainketa luzea behar duten gaixoei arreta emateko zerbitzua edo unitatea, adina zeinahi dutela ere.

Psikiatria.- Paziente psikiatrikoei arreta emateko unitatea. Bi unitate-mota bereizi behar dira: akutuen unitatea edo egonaldi laburrekoa, batetik, eta paziente kronikoentzako egonaldi ertain edo luzeko unitateak, bestetik (egoitza-unitateak, errehabilitazio-unitateak eta abar).

Zainketa aringarrietako unitatea.- Adierazi egin behar dira, baldin eta unitate horiek fase terminalean dauden eta askotariko arrazoiengatik —hala nola sintoma multifaktorialak izateagatik— ospitalean egon behar duten pazienteei zainketa aringarria emateko soilik erabiltzen diren oheak badituzte.

Beste batzuk.- Aurreko ataletan jaso ez diren beste arlo batzuk, baldin eta unitate edo zerbitzu bereziak osatzen badituzte: HIESA, alkoholikoak eta/edo toxikomanoak desintoxikatzeko unitateak, tuberkulosia, leprologia, hidrologia eta abar. **Arlo-motak zehaztu.**

GUZTIZKOA.- Zentroaren osasun-jarduera orotara, laukiko atal bakoitza aintzat hartuta: erabiltzen diren oheak, eragindako egonaldiak, urteko altak eta abar.

OSPITALERATZEAK.- Urte horretan pazienteei diagnostikoa egite aldera eta/edo tratamendua emate aldera zenbat ospitaleratze izan diren adierazi behar da. Honako hauek, berriz, ez dira ospitaleratzetat joko: pazienteak larrialdi-zerbitzuko behaketa-unitatean artatzen badira, eguneko ospitalean badaude, hemodialisi-saioak hartzen badituzte, kirurgia ambulatorioa egiten bazaie eta ospitalearen barruan zerbitzu batetik bestera eramaten badituzte. Ospitaleratze programatuak eta premiazkoak bereizi egin behar dira.

Ospitaleratze programatuak: ospitaleratze-agindu programatuarekin ospitaleratutako pazienteak, itzarote-zerrendakoak izan zein ospitaleratze-atzerapenik gabeko zerbitzu batekoak izan.

Ospitaleratze larriak: premiaz ospitaleratutako pazienteak, larrialdigune batetik igorritakoak izan zein ez.



## I. KIRURGIA-ARLOKO JARDUERA

Guztizko ekintza kirurgikoak.- Osasun-zentroan (ospitalean eta haren mendeko espezialitate-zentroetan) egindako ekintza kirurgiko guztien kopurua. Ez dira sartzen estatistika honetarako ebakuntza-gelatzat definitu den horretatik at egindako ebakuntzak.

Honela sailkatu dira:

Ekintza kirurgiko programatuak.- Berehala egin beharrekoak ez diren ekintza kirurgikoak dira. Hala, bada, denbora izaten da gaixoari aurretiaz azterketa osoa egiteko eta ehar bezala prestatzeko.

Premiazko ekintza kirurgikoak.- Gaixoak duen patologia dela-eta berehala egin beharreko ekintza kirurgikoak dira.

- Ospitaleratzea eskatzen dutenak.- Aurretiaz ospitaleratu dauden edo ebakuntzaren ostean ospitaleratu behar izaten diren pazienteei egiten zaien kirurgia.
- Kirurgia handi anbulatorioa.- Anestesia orokorra, lokala, erregionala edo lasaigarriak erabiliz egiten diren kirurgia-prozesuak dira, zeinak ebakuntza osteko zaintza arinak eta laburrak eskatzen dutenez ez baitute ospitaleraterik behar; hala, ebakuntza amaitu eta ordu gutxi batzuetara har dezakete pazienteek alta. I. eranskinean, ospitale publikoetako prozedura anbulatorio maizkoenen zerrenda dago, Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoko (CMBD) CIE 9 MC sailkapenean oinarrituta, eta lagungarri gerta daiteke kirurgia handi anbulatorioko ebakuntzen berri izateko.
- Ospitaleraterik gabeko gainerako ebakuntzak.- Ospitaleko ebakuntza-gelaren batean edo eguneko ospitale kirurgikoan anestesia lokalarekin modu anbulatorioan egindako ebakuntza txikiak dira. Ebakuntza egin ostean ez dute behaketa-aldirik behar.

Espezialitate kirurgikoen arabera sailkatu behar dira, 2003ko maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalean itzarote-zerrendeiei buruzko informazioa modu homogeneoan tratatzeko neurriak ezartzen dituen, oinarritzat hartuta.

Angiologia eta kirurgia baskularra  
 Bihotzeko kirurgia  
 Kirurgia orokorra eta digestio-aparatuko kirurgia  
 Aurpegi-masailletako kirurgia  
 Kirurgia pediatrikoa  
 Kirurgia plastikoa  
 Kirurgia torazikoa  
 Dermatologia  
 Ginekologia  
 Neurokirurgia  
 Oftalmologia  
 Otorrinolaringologia  
 Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia  
 Urologia  
 Beste batzuk  
 GUZTIRA

## **J. OBSTETRIZIA-ARLOKO JARDUERA**

Bagina bidezko erditzeak.- Bagina bidez izan diren erditzeak, guztira.

Zesareak.- Zesarea bidez izan diren erditzeak, guztira.

Hauxe jotzen da erditzetzat: sortze-UNETIK garatutako produktu bizigaia amaren umontzitik kanporatzea edo ateratzea. Fetu bizigaia, berriz, jaiotzean 500 gramoko edo gehiagoko pisua duen fetua da.

Jaioberri bizia.- Jaiotza bizi baten produktu bakoitza da, alegia, sorkuntza-alditik garatutako produktua amaren gorputzetik guztiz kanporatzea edo ateratzea —haurdunaldiaren iraupena zeinahi dela ere— eta amarengandik bereizi ondoren jaioberriak arnas hartzea edo beste edozein bizi-seinale adieraztea —hala nola, bihotz-taupadak, zilbor-hesteko taupadak edo borondatezko uzkuradura-muskuluen mugimendu egiazkoak— zilbor-hestea dagoeneko ebakita egon edo ez eta plazenta dagoeneko askatuta egon edo ez.

Jaioberri horietatik, 2.500 g baino gutxiagoko pisua zenbatek izan duten adierazi behar da.

**Ama-hiltzeak:** Haurdunaldiaren iraupena zeinahi dela ere, haurdunaldian edo haurdunaldia amaitu eta hurrengo 42 egunetan, guztira, zenbat emakume hil diren, haurdunaldiak gaizkiagotutako gaitzen bat dela-eta edo haurdunaldian artatzean jazotako edozein gertakari dela-eta. Ez dira kontuan hartu behar istripuak edo antzeko gertakariak (adibidez, ez da kontuan hartu behar haurduna zirkulazio-istripu batean hil bada).

## **K. EGUNEKO OSPITALEA**

Ordu batzuetako arreta-zerbitzua, askotariko diagnostikoak, ikerketa klinikoak eta/edo miaketak egiteko eta kanpoko kontsultan ezin egin daitezkeen baina, era berean, ospitaleko egonaldi erabatekoa behar ez duten tratamenduak emateko.

Arreta medikoa.- Ospitaleratzetik gabeko tratamendu medikoak behar dituzten pazienteentzat. Gaixo onkologiko eta hematologikoentzako kimioterapia atal honi dagokio, baldin eta tratamendua eguneko ospitaleko erregimenean ematen bazaie.

Arreta psikiatrikoa.- Ospitaleratu beharrik gabe, tratamendu psikologikoa, psikiatrikoa edo terapia okupazionalak jaso behar duten gaixoentzat.

Arreta geriatrikoa.- Paziente geriatrikoak eta/edo balioespen geriatrikoa, errehabilitazio-tratamenduak edo osasun-zainketak behar duten pazienteak artatzeko.

Oro har, honako baldintza hautetatik hiru edo gehiago betetzen duena jotzen da paziente geriatrikotzat:

- Eskuarki, 75 urtetik gora izatea
- Patologia ugari izatea
- Pazientearen gaixotasun nagusiak baliaezintasun fisikoa eragiteko joera izatea
- Buru-patologiaren bat izatea, patologia osagarri zein patologia nagusi gisa
- Osasun-egoerari lotutako gizarte-arazoren bat izatea (euskarri falta)

Eguneko ospitalean tratamendua hasi duten pazienteen kopurua hartu behar da kontuan (pazienteak), baita saio-kopurua ere (pazienteak dagokion tratamendua egiteko zenbat kontaktu behar dituen, saio horietako bakoitzerako behar dituen zainketak edonolakoak direla ere).

Eguneko ospitalean artatutako paziente bat, azkenean, ospitaleratu egin behar bada, ospitaleratzeen atalean sartu behar da, ez eguneko ospitaleko saio modura.

## **L. ETXEKO OSPITALIZAZIOA**

Etxeko ospitalizazioa.- Ospitaleetik kanpoko arreta emateko aukera da. Gaixotasunaren hasieran ospitalean tratamendua jaso ondoren, tratamendua behar izaten jarraitu arren, etxera joan daitezkeen pazienteei ematen zaie, ospitaleko langile-talde batek egiten baitu tratamenduaren kontrola paziente horien etxean bertan. Etxeko dialisia ez dagokio atal honi.

Paziente-kopurua eta osasun-langileek egindako etxerako bisitak guztira zenbat diren adierazi behar da.

## **M. KONTSULTA-ARLOKO JARDUERA**

Espainiako Osasun Sistemaren ospitaleetako jardueraren zati handi bat haien mendeko espezialitate-zentroetan egiten denez, jarduera hori bereiz jaso beharra dago. Horregatik, bada, berariaz adierazi behar dira ospitalearen beraren kanpoko kontsulten arloan egindako jarduerak, baita haren mendeko espezialitate-zentroetan egindakoak ere.

Anamnesian eta miaketa fisikoan oinarrituta pazienteari diagnostikoa egiteko, tratamendua emateko eta segimendua egiteko modu ambulatorioan egindako ekintza medikoa da kontsulta.

Horrenbestez, ez dira kontsultatzat hartu behar:

- Erizainek egindakoak
- Zerbitzuen arteko eskaerengatik ospitaleratutako pazienteei egindakoak
- Diagnosi-proba osagarriak egitea edo haien gaineko txostena eratztea
- Laginak hartzea
- Beste profesional batzuek (psikologoak, fisioterapeutak...) egindako kontsultak

Bereizi beharrekoak:

Lehenengo kontsultak.- Dagokion osasun-arretako jarduera zehatzaren kanpoko kontsultara prozesu jakin baterako lehenengoz doazen pazienteen kopurua.

Oro har, honako hauek jotzen dira lehengo kontsultatzat:

- Larrialdi-unitatetik datozen guztiak
- Lehen mailako arreta-ekimenez sortutako guztiak
- Beste espezialitate batetik datozen guztiak
- Ebazpen-maila handiko kontsultak

Ospitaleratze osteko kontsultak segidako kontsultatzat jotzen dira.

Gutizko kontsultak. - Arestian hartutako definizioarekin bat datozen kontsulta guztiak adierazi behar dira, lehen kontsultak zein segidakoak izan.

Oinarrizko espezialitate hauek sailkatu behar dira, 2003ko maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalan itxarote-zerrendei buruzko informazioa modu homogeenan tratatzeko neurriak ezartzen dituen, oinarriztat hartuta:

Digestio-aparatua  
 Kardiologia  
 Dermatologia  
 Neurologia  
 Psikiatria  
*Gainerako espezialitate medikoak*  
 Kirurgia orokorra eta digestio-aparatuko kirurgia  
 Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia  
 Ginekologia\*  
 Oftalmologia  
 Otorrinolaringologia  
 Urologia  
*Gainerako espezialitate kirurgikoak*  
 Pediatria  
 Aurreanestesia  
 Errehabilitazioa  
 Beste batzuk

## **GUZTIZKO KONTSULTAK**

\* Ginekologia: Obstetrizia eta ginekologiaren arloan egindako kontsultak barne hartzen ditu.

## **N. OSASUN-ZENTROKO LARRIALDI-ZERBITZUKO JARDUERA**

Larrialdi-zerbitzuko altak.- Larrialdi-zerbitzuan alta eman zaien pazienteak dira, alegia, osasun-zentroan ospitaleratu beharrik izan ez dutenak, beste ospitale batera eraman behar izan ez direnak, eta larrialdi-zerbitzuan hil ez direnak. Borondatezko altak ere atal honi dagozkio.

Larrialdiko ospitaleratzeak.- Larrialdi-zerbitzuan artatu eta ondoren osasun-zentroko zerbitzuren batean ospitaleratutako pazienteak dira.

Larrialdi-zerbitzutik egindako lekualdaketak.- Larrialdi-zerbitzuan artatu ondoren, beste ospitaleren batera eraman diren pazienteak.

Larrialdi-zerbitzuan gertatutako heriotzak.- Osasun-zentroaren larrialdi-zerbitzuan hil diren pazienteak. Hilotz sartu ziren pazienteak ez dira kontabilizatu behar.

Larrialdiak, guztira.- Osasun-zentrorra kanpotik datozen gaixoei artatutako larrialdiak soilik zenbatu behar dira. Hala, ospitaleratuta zeuden pazienteei egindako premiazko kontsultak ez dira aintzat hartu behar.

## **O. JARDUERA DIAGNOSTIKOA**

Ospitalean bertan eta haren mendeko espezialitate-zentroetan egindako jarduera diagnostikoa jaso behar da. Hitzarmenen bidez beste zentro batzuetan egindako jarduera ez da sartu behar. Horrenbestez, zentroan egindako jarduera hartu behar da aintzat, ez itundua.

### **Anatomia patologikoa.**

Biopsiak.- Guztira zenbat biopsia-espezimen eta atal kirurgiko aztertu diren adierazi behar da. Zitologiak ez dira sartu behar.

Zitologiak.- Zenbat azterketa egin diren adierazi behar da. Demagun hiru egunez, jarraian, espektorazio-laginak hartu direla. Horrelakoetan, hiru lagin kontabilizatu behar dira. Aldiz, umetoki-lepoaren eta bagina-zakuko hondoaren laginak aldi berean hartzen badira, lagin bakar modura zenbatu behar dira.

Nekropsiak (guztira).- Osasun-zentroko langileek guztira zenbat nekropsia egin dituzten adierazi behar da, beste zentro batzuetan hil diren eta aztertzeko bidali diren pazienteenak barne. Zio judizialak direla medio auzitegiko medikuek egindako nekropsiak ez dira atal honetan jaso behar.

### **Irudia.**

Angiografia digitala.- Guztira zenbat azterketa egin diren adierazi behar da.

Hezur-dentsitometriak.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren.

Ekografiak.- Zenbat ekografia egin diren (azterketa bakoitza unitate bat izango da). Osasun zentroko zerbitzuetan (erradiodiagnostikoa, ginekologia, digestio-aparatuko zerbitzua) egindako ekografien guztizko kopurua ere jaso behar da.

Gammagrafia.- Zenbat gammagrafia-azterketa egin diren adierazi behar da, azterketen iraupena edo erregistro-kopurua zeinahi dela ere.

Mamografiak.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren zenbatu beharko da, erabilitako plaka kopurua edozein dela ere.

PET eta PET-TC.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren zenbatu behar da.

Erresonantzia magnetikoa.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren adierazi behar da.

X izpi ohikoak (azterketak).- Ohiko azterketa erradiologiko bakoitza hartu behar da kontuan —teleagintea eta irudia biziagotzeko euskarria barne—, azterketa sinplea zein dinamikoa izan eta kontrasteduna zein kontraste gabea, eta erabilitako plaka-kopurua zeinahi dela ere. **Mamografiak** ez dira atal honetan sartu behar.

SPECT.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren zenbatu behar da.

OTA.- Teknika horren bidez zenbat azterketa egin diren adierazi behar da, azterketa kontrastedunak zein kontraste gabeak, biak kontuan hartuta eta azterketa bakoitzean lortutako irudien kopurua edozein dela ere.

## **P.- BESTE JARDUERA-EREMU BATZUK**

Ospitalean bertan eta haren mendeko espezialitate-zentroetan egindako jardueraren berri jaso behar da. Hitzarmenen bidez beste zentro batzuetan egindako jarduera ez da kontuan hartuko.

Hemodinamika.- Osasun-zentroko hemodinamika-gelan azterketak egiten zaizkien pazienteen kopurua. Azterketa diagnostikoak eta terapeutikoak ere kontuan hartzekoak dira.

Erradiologia interbentzionista.- Teknika horrekin ebakuntza egin dieten pazienteen kopurua.

Giltzurrun-litozatiketa, talka-uhinen bidezko litozaticailua erabiliz. Pazienteak eta saioak zenbatu behar dira.

Erradioterapia.- Artatu diren pazienteak eta eman diren tratamendu-saioak zenbatu behar dira (ikus definizioak aurrerago).

Multzoka bereizi behar dira, tratamendurako zer teknika erabili den aintzat hartuta: azeleragailu lineala, telekobaltoterapia-ponpa eta beste teknika batzuk (ohiko erradioterapia-teknika, azaleko erradioterapia, kuriterapia eta estrontzioa...).

Errehabilitazioa.- Errehabilitazio-zerbitzuaren arreta-jarduera.

Artatu diren pazienteak eta eman diren tratamendu-saioak zenbatu behar dira. Multzoka bereizi behar dira, tratamendurako zer teknika erabili den aintzat hartuta: fisioterapia, terapia okupazionala eta logopedia.

Dialisia.- Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa duten pazientei egiten zaiena.

Hemodialisia, osasun-zentroan bertan zein haren mendeko dialisi-zentro anbulatorioan egiten dena (dialisi-klubekoak kanpo).

Etxeko peritoneo-dialisia, ospitaleak kontrolatua. Peritoneo-dialisia.

Etxeko hemodialisia, ospitaleak kontrolatua.

Atalahauetan, datu hauek jaso behar dira:

Pazienteak, guztira.- Urte horretan, guztira, zenbat pazienteri eman zaien tratamendua.

Saioak, guztira: - Errehabilitazioa: paziente bakoitzari zenbat saio eman zaizkion.

- Erradioterapia: paziente bakoitzari zenbat saio eman zaizkion.

- Dialisia: hemodialisiko zenbat tratamendu-egun izan diren, osasun-zentroan zein pazientearen etxean.

Esate baterako, demagun paziente batek erradioterapiako 8 saio hartu dituela. Horrelakoetan, honela adierazi behar dira datuak: 1 paziente, 8 saio.

## **Q. PAZIENTEEN ERREGIMEN EKONOMIKOAREN ARABERAKO ARRETA-JARDUERA**

Lauki honetan, osasun-zentroaren jarduera jaso behar da, zerbitzua eman zaien pazienteen erregimen ekonomikoaren arabera sailkatuta.

Kontzeptu hauen definizioak dagokien atalean ageri dira: ospitaleko altak, egonaldiak, eguneko ospitaleko saioak, kirurgia handi ambulatorioko ebakuntzak, guztizko kontsultak, guztizko larrialdiak eta etxeko ospitalizazioak (pazienteak). Kontzeptu hauen GUZTIZKOAK jardueraren atalean adierazitako guztizkoarekin bat etorri behar du. Ospitaleratze-aukera duen osasun-zentroaren jardueraren eta haren mendeko zentroen jardueraren arteko baturaren berdina izan behar du GUZTIZKOAK.

Jarduera pazienteen erregimen ekonomikoaren arabera sailkatzeko, teorikoki urtean jasotako osasun-zerbitzuak finantzatzea legokiokkeen pertsona edo erakundea hartu behar da kontuan, ordainketa noiznahi egiten dela ere.

Zenbait kasutan, zentroak emandako arreta-zerbitzuaren zati bat erakunderen bati — publikoa edo pribatua— fakturatu ahal dio, eta beste zati bat pazienteari berari. Horrelakoetan, erakunde horri dagozkion laukitxoetan jaso behar dira datuak, eta oharren atalean eman horren berri.

Partikularren konturako zerbitzua.- Jasotako osasun-zerbitzua pazienteek zuzenean ordaintzen diote zentroari, inolako bitartekaririk gabe: ez Gizarte Segurantzak, ez aseguru libreko erakundeak, ez beste inor.

Aseguru-entitate pribatuen konturako zerbitzua.- Gaixoei emandako zerbitzua osasun-arretako aseguru-etxe libreei fakturatzeko zaie, osasun-zentroa aseguru-etxeen jabetzapekoa izan zein ez.

Espainiako Osasun Sistemaren konturako zerbitzua.- Pazienteei emandako zerbitzua INGESAri edo autonomia-erkidegoko dagokien osasun-zerbitzuei fakturatzeko zaie.

Funtzionarioen mutualitateen konturako zerbitzua.- Gaixoei emandako zerbitzua funtzionarioen mutualitateen baten kontura doa (MUFACE, ISFAS, mutualitate judiziala eta abar), osasun-arretako prestazioa zeinahi entitaterekin hitzartzen dela ere: aseguru-etxe pribatuekin, INGESArekin edo dagokion autonomia-erkidegoko osasun-zerbitzuekin.

Beste erakunde publiko batzuen konturako zerbitzua.- Emandako osasun-zerbitzua dagokion autonomia-erkidego, probintzia, udalerrri edo uharterako erakunde publikoren batek ordaintzen du, ospitalea erakunde horien jabetzapekoa izan zein ez.

Lan-istripu eta gaixotasun profesionalen Gizarte Segurantzako mutualitateen konturako zerbitzua.- Emandako osasun-zerbitzua erakunde horiek ordaintzen dute, osasun-zentroa haien jabetzapekoa izan zein ez.

Nazioarteko hitzarmenen konturako zerbitzua.- Emandako osasun-zerbitzua nazioarteko hitzarmenak dituzten herrialdeetako pazienteen kontura doa.

Zirkulazioko istripuen aseguru-etxeen konturako zerbitzua.- Zirkulazio-istripuagatik ospitaleratu diren pazienteei emandako zerbitzuak istripu-mota horien aseguru-etxe bati fakturatzeko zaizkio.

Osakidetzaren konturako zerbitzua.- Paziente horiei emandako zerbitzuak Osakidetzaren konturako zerbitzuei dagokien lerroan jasotzekoak dira, nahiz eta ospitaleak programa-kontratuaren bidez Osasun eta Kontsumo Sailari fakturatu.

LAGUN-AROn konturako zerbitzua.- Erakunde horren kontura ordaindutako zerbitzua jaso behar da.

Beste batzuk.- Aurreko ataletan aipatutako erregimen ekonomikoetako bat ere ez duten pazienteei emandako osasun-zerbitzua jaso behar da (sailkatu gabea, ongintzako jarduera eta abar).

## **OHARRA:**

2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 ERREGE DEKRETUA, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldian ezarri beharreko Kontabilitateko Plan Orokorra onartu zuena argitaratzearen ondorioz, aldaketak egin dira zenbait kontutan.

Eskuliburu hau egin den garaian oraindik ez denez egokitzapen sektorialik egin, ekonomiaren gaineko koadroetako kontuen zenbakitze-sistema Kontabilitateko Plan Orokorra osasun-arretako enpresei egokitzeko arauetan erabilitako horri dagokio (Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1996ko abenduaren 23ko Agindua, 1997ko urtarrilaren 6ko BOE, 5. zk.), salbu eta ibilgetuari buruzko atalean, 6. eta 7. taldeetako kontu erantsietan eta, azken horren barruan, 701. eta 705. kontuetan.

Ospitalearen mendeko zentro guztien datu ekonomikoak jasotzen ditu, zentroen ezaugarriak zehazteko datuak barne.

Ekonomiari buruzko laukietan ezarritako kantitateak **eurotan adierazi behar dira, hamarrekorik gabe.**

## **R. EROSKETAK ETA GASTUAK**

Osasun-arreta emateko behar diren produktu farmazeutikoez eta gainerako ondasunez hornitzeko erosketak eta gastuak dira. Atal honek, orobat, ekitaldian izandako gastu guztiak hartzen ditu aintzat, honako hauek barne: zerbitzu eta material kontsumigarriak, erositako izakinen gorabeherak eta ekitaldian izandako aparteko galerak.

Atal honetan jasotako informazioaren helburua da zentroaren funtzionamendu-gastuak eta haien egitura ezagutzea.

Jakin badakigu zenbait kasutan zentroak ezin duela bere gaineko erakundetik erabat bereizitako kontabilitatea izan. Hala gertatzen da, adibidez, sektore pribatuan, aseguru-konpainia baten jabetzapeko zentroetan edo, sektore publikoaren barruan, foru aldundien, udalen edo Gizarte Segurantzaren jabetzapeko zentroetan. Horrelakoetan, gerta daiteke osasun-zentroak eragindako zenbait gastu —baita gastu guztiak ere— zentro horren gaineko agintea duen erakundearen gastu modura jasotzea. Kasu horietan, osasun-zentroari egotzi behar zaio gastua, nornahik ordaintzen duela ere.

Osasun-arreta ematen duten enpresek kontularitzako planifikazioaren arauen arabera doitu behar dute, nahitaez, kontabilitatea, arlo hori arautzen duten xedapenei jarraikiz.

Lauki honetako kontuek, 68. kontuak salbu (amortizazioetarako zuzkidurak), urte horretan dagokien kontzeptuengatik hartutako ordainketa-konpromisoak jaso behar dituzte, kontuan



hartu gabe —oso garrantzitsua da hori— zentroak konpromiso horiek noiz ordaintzen dituen edo erositako elementuak noiz erabiltzen dituen.

## 60. EROSKETAK

Enpresak izan duen hornidura da, osasun-arreta emateko jardueraren barruan beste enpresa eta profesionaleri agindutako lanak eta zerbitzuak barne.

Erosketak eroste-prezioan balioztatu behar dira, alegia, deskontuak, merkatzeak eta komisioak alde batera utzita. Aldiz, kontuan hartu behar dira garraio-gastuak, aduanak eta zergak (BEZa izan ezik).

### 600. Farmaziako produktuen erosketak

Sendagaien erosketak-balioa jasotzen du.  
Sendagai espezifikoak.  
Farmaziako beste produktu batzuk.

### 601. Kontsumoko osasun-materialen erosketak

Farmaziako produktuak ez badira ere, gaixoa artatzeko baliatzen diren erabilera bakarreko produktuak dira.

Bi multzo bereizi behar dira:

601.1 Implanteak, ortesiak eta protesiak.

601.2 Kontsumoko gainerako osasun-materialak.

Erradiodiagnostikoa egiteko materiala (plakak, errebelatzaileak, babes-xaflak eta erradiologian erabiltzen den gainerako materiala).

Kateterrak, zundak, hodi biltzaileak eta dialisi-mintzak.

Kontsumoko bestelako osasun-materiala (sendaketak egiteko materiala, josturak eta aposituak, behin erabiltzeko beste material batzuk, material erradioaktiboa eta abar).

### 606. Beste enpresa edo profesional batzuek eskainitako osasun-arretako zerbitzuak

Osasun-arretari dagozkion prozesuen barruan kanpoko enpresa edo profesionalen esku uzten diren lanak edo zerbitzuak: osasun-arloko lizentziadunek eta teknikariek edo enpresek ematen dituzten arreta-zerbitzuak.

Beste batzuekin itundutako osasun-arretako hitzarmenak barne: ospitaleak, ospitale ez diren zentroak, zentro espezialistak eta osasunaren nazioarteko sailkapen funtzionalaren arabera “osasun-zerbitzu osagarriak” (HC.4) dagozkien beste zerbitzu batzuk: laborategi klinikoak, irudi diagnostikoa egiteko zerbitzuak, pazienteak garraiatzeko eta larrialdiko erreskateak egiteko zerbitzuak eta gainerako zerbitzu osagarriak.

### 607. Beste enpresa edo profesional batzuek egindako lanak

ekoizpen-prozesuen barruan kanpoko enpresa edo profesionalen esku uzten diren lanak edo zerbitzuak: ikuzketa-zerbitzua, garbiketa, segurtasuna, ostalaritza eta beste batzuk.

## 60X. Gainerako erosketak

60. azpimultzoaren barruan, zentroak egindako erosketen guztizko balioa jaso behar da:

### 602. Tresnen eta erreminta txikien erosketak

Merkeak eta bizitza laburrekoak direlako amortizatzeko ibilgetutzat jotzen ez diren tresnen eta erreminten erosketak. Erabilera klinikoak duten tresnak eta erremintak eta erabilera klinikoak ez dutenak, biak sartzen dira.

### 603. Elikagaien erosketak

Elikadura-zerbitzuetarako produktuen erosketak.

### 604. Jantzien, arropa zurien eta oinetakoeren erosketak

Ehunezko gaien, beste material batzuek egindako produktuen eta oinetakoeren erosketak, enpresak gelen hornikuntzan, osasun-arretako beste arlo batzuetan, informazio-sailean eta abarretan erabil ditzan.

### 605. Beste hornigai batzuen erosketak

Erregaiak (biltegitatu daitezkeen energia-gaiak: gasolina, gasolioa, ikatza eta abar), ordezkoko piezak, konponketa-lanak eta mantentze-lanak egiteko materialak, garbitze-eta txukuntze-lanetarako materialak, bulegoko materialak eta bestelakoak.

### 608, 609. Erositakoak itzultzea eta antzeko eragiketak

Hornitzaileei itzulitako material sortak —normalean, eskaera-baldintzak bete ez dituztelako—. Faktura jaso ostean, zergati horregatik berarengatik egindako deskontuak eta antzekoak ere atal honetan jasotzekoak dira.

### Erosketengatiko beherapenak

Eskaera-bolumen jakin batera iristeagatik egiten diren beherapenak eta antzekoak.

## 61. IZAKIN-ALDAKUNTZA

Ekitaldia ixten denean 600. ataletik 605. atalera adierazitako produktuetan hasierako eta amaierako izakinen artean egondako aldakuntzak zehazteko kontuak dira.

## 62. KANPOKO ZERBITZUAK

Askotariko zerbitzuak, enpresak erositakoak, 60. azpimultzoan jaso ez direnak edo ibilgetua erosteko prezioaren barnean edo behin-behineko finantza-inbertsioen barnean ez daudenak.

### 628. Hornidurak

Elektrizitatea eta biltegitatu ezin daitezkeen beste edozein hornikuntza-mota.

## 62X. KANPOKO GAINERAKO ZERBITZUAK

62. azpimultzoaren barruan, zentroak egindako erosketen guztizko balioa jaso behar da:

620. Ekitaldiaren barruan, ikerketan eta garapenean izandako gastuak  
Beste enpresa batzuei eskatutako ikerketa- eta garapen-zerbitzuetako gastuak.

### 621. Errentamenduak eta kanonak

Errentamenduak: enpresak darabiltzan edo erabilgarri dituen ondasun mugikor eta mugiezinak alokatzeagatiko gastuak.

Kanonak: industria-jabegoko edozelako baliabideren erabilera-eskubideagatik edo erabilera-emakidagatik ordaintzen den diru-kopuru finkoa edo aldagarria.

622. Konponketa- eta mantentze-lanak

Ibilgetuan jasokotako ondasunak mantentzeko lanek eragindako gastuak.

623. Zerbitzu profesional independenteak

Osasun-arretako enpresak jaso dituen zerbitzuengatik profesionalei ordaindutako zenbatekoa. Ekonomistei, abokatuei, auditoreei, notarioei eta abarrei ordaindu beharreko zerbitzu-sariak hartzen ditu barne, baita agente bitartekari independentei ordaindu beharreko komisioak ere.

624. Garraio-gastuak

Hirugarren batzuek enpresaren kontura egindako garraio-lanen gastuak, gastu horiek ibilgetua edo izakinak erosteko prezioaren barruan jaso ezin badaitezke.

625. Aseguru-sariak

Aseguru-sariengatik ordaindutako diru-kopurua, salbu eta ospitaleko langileei dagozkienak.

626. Bankuko zerbitzuak eta antzekoak

Finantza-gastuetatik kanpo, bankuko zerbitzuen eta antzekoen truke ordaindutako diru-kopurua.

627. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak

Kontuaren izenburuan adierazitako zerbitzu horien truke ordaindutako zenbatekoa.

629. Bestelako zerbitzuak

Aurreko kontuetan jaso ez diren beste zerbitzu batzuk.

Kontu honi dagozkio, besteak beste: enpresako langileen bidaia-gastuak —garraio-gastuak barne— eta gainerako kontuetan jaso ez diren bulego-gastuak.

## 64. LANGILEEK ERAGINDAKO GASTUAK

Langileei dagozkien ordainsariak (BAMEak, BAFEak eta abar barne) —edozein delarik ere ordaintzen den kontzeptua—, enpresak Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotak eta izaera sozialeko beste gastu batzuk.

640. Lansariak eta soldatak

Osasun-zentroko langileei ordaindutako ordainsari finkoak eta noizean behingoak.

641. Kalte-ordainak

Zentroko langileei eragin zaien kalte edo galeraren ordainez emandako diru-kopurua. Kaleratzeengatik edo erretiro aurreratuengatik ordaindutako kalte-ordainak dagozkio bereziki kontu honi.

642. Enpresaren kontura ordaindutako Gizarte Segurantza

Enpresak Gizarte Segurantzaren erakundeei ordaindutako kuotak, erakunde horiek emandako prestazioengatik.

643, 649. Beste gizarte-gastu batzuk. Hauek hartzen ditu barne:

643. Pentsio-sistema osagarriari egindako ekarpenak

Osasun-zentroko langileen pentsio-planatarako edo erretiro, baliaezintasun edo heriotzagatiko antzeko estaldura-sistematarako egindako ekarpenen zenbatekoa.

649. Beste gastu sozial batzuk

Izaera sozialeko gastuak, enpresak bere borondatez edo lege-xedapenen bat betetze aldera egindakoak: ekonomatuei eta jantokiei emandako diru-laguntzak, lanbide-heziketako eskolak eta erakundeak mantentzeko laguntzak, ikasketetarako beka eta aseguru-kontratuengatiko primak (bizitza-aseguruak, istripu-aseguruak, gaixotasun-aseguruak eta abar), Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotak izan ezik.

68. AMORTIZAZIOETARAKO ZUZKIDURAK

Aztertutako denboraldian guztira zenbat zuzkidura egin diren jakitea da helburua, alegia, inbentario bidez jaso daitezkeen ondasun higikor eta higiezinaren kategorian guztiek urtean egiazki izandako balio-galera zenbatekoa izan den, lursailak kanpoan utzita eta honako hauek barne hartuta:

69. NARRIADURAGATIKO GALERAK ETA BESTE ZUZKIDURA BATZUK

Ibilgetu material eta ukiezina, izakinak, kaudimen-gabezia eta abar hartzen du barne.

6X. GAINERAKO GASTUAK

Zentroak 6. multzoko gainerako kontuei dagokienez izandako gastua guztira zenbatekoa den jaso behar da.

63. ZERGAK

Atal honen barne daude administrazio publikoei nahitaez egindako ordainketak, osasun-zentroaren jardura eta ekoizpen-faktoreen erabilera zergapetzen dituztenak. Irabazien gaineko zerga eta beste zerga batzuk (lizentzia fiskala, finkapen-zerga eta abar).

Honela sailkatzen dira:

- jasanarazitako BEZA
- jasandako eta kendutako BEZA
- zeharkako beste zerga batzuk, hala nola lizentzia fiskala, finkapen-zerga eta publizitate-zerga.

Zeharkako zergarik ez da sartzen (PFEZ, sozietate-zerga).

65. BESTE KUDEAKETA-GASTU BATZUK

Beste azpimultzo batzuetan jaso ez diren gastuak, betiere aparteko gastuak ez badira.

66. FINANTZA-GASTUAK

Obligazioen eta bonuen interesak, zorren interesak, efektuen deskontuagatiko interesak, goiz ordaintzeagatiko deskontuak, balore negoziagarrietan izandako galerak, truke-alde negatiboak eta abar.

## 67. APARTEKO BESTE GASTU BATZUK

Aldizkotzat jo behar ez diren diru-galera eta gastu handiak.

Hona hemen, adibide gisara, atal honi dagozkion zenbait gastu: uholdeen, suteen edo bestelako istripuen ondorioz sortutakoak, zehapen eta isun fiskalei dagozkienak eta abar.

## S. SALMENTEN ETA DIRU-SARREREN GUZTIZKOA, OSASUN-ARRETAKO FUNTZIOETAKOA BARNE

Guztira izandako ustiapeneko diru-sarrerak, aparteko diru-sarrerak eta ustiapenerako diru-laguntzak barne hartzen ditu.

Dagokion ekitaldian fakturatu den diru-kopurua adierazten du, faktura horiek noiz kobratu ziren kontuan hartu gabe.

S laukiaren aurreko kontuetan jasotako diru-sarreraren guztizkotik honako zerbitzu hauek adierazi behar dira, xeheki: ospitalizazioa, kanpo-kontsultak, kirurgia handi anbulatorioa, larrialdi-zerbitzua, eguneko ospitalea eta etxeko ospitalizazioa.

## 70. ZERBITZUAK EMATEAGATIKO DIRU-SARRERAK

Osasun-zentroak ematen dituen zerbitzuen truke egindako diru-sarrerak jasotzen dira kontu honetan: egonaldiak, kanpo-kontsultak, analisiak, erradiografiak eta gainerako zerbitzuak, ordaintzailearen arabera sailkatuta.

Honako arau hauei kontu egin behar zaie, beti:

Lehena.- Fakturan bertan deskontuak, hobariak eta beherapenak eginez gero, salmentaren zenbateko txikiagotzat jo behar dira. Faktura igorri ostean beherapenik eginez gero —kalitate-akatsen bat izateagatik, entrega-epeak ez betetzeagatik edo antzeko zergatiren batengatik—, halakoetan ere irizpide hori bera ezarri behar da.

Bigarrena.- Enpresak azkar ordaintzeagatik eta fakturatik kanpo ematen dituen deskontuak, hobariak eta beherapenak finantza-gastutzat hartu behar dira.

### 700. Partikularrei emandako zerbitzuak (gaixoei zuzenean fakturatutako fakturen bidez jasotako diru-sarrerak)

Bezero partikularrei emandako arreta-zerbitzuen truke izan den fakturazioa (enpresaren baten konturako zerbitzuak eta bezeroek beren gain hartutakoak barne).

### 701. Aseguru-etxe pribatuetakoak

Honela bereizi behar dira:

#### 701.1. Osasun-arretako eta gaixotasuneko aseguruetakoa

Bezeroei emandako osasun-arretako zerbitzuaren truke aurretiaz hitzartutako prezioan egindako fakturazioa, zeina ordaintzeko erantzukizuna aseguru-etxe pribatuek hartzen duten.

#### 701.2. Zirkulazio-istripuetako aseguruetakoa

Bezeroei emandako osasun-arretako zerbitzuaren truke aurretiaz hitzartutako prezioan egindako fakturazioa, zeina ordaintzeko erantzukizuna zirkulazio-istripuen aseguru-etxeek hartzen duten.

702. Lan-istripuen mutualitateetakoak

703. Gizarte Segurantzaren enpresa lankideetakoak

Bezeroei emandako osasun-arretako zerbitzuaren truke aurretiaz hitzartutako prezioan egindako fakturazioa, zeina ordaintzeko erantzukizuna Gizarte Segurantzaren mutualitate edo enpresa lankideek hartzen duten.

704. Espainiako Osasun Sistemako entitate edo erakundeetakoak

Bezeroei emandako osasun-arretako zerbitzuaren truke egindako fakturazioa, Espainiako Osasun Sistemaren entitate edo erakundeen kontura ordaintzekoa.

***Espainiako Osasun Sistemaren mendeko zentroak badira, beste autonomia-erkidegoetatik joandako gaixoei eta nazioarteko hitzarmenen mendekoei zentroan emandako osasun-arretaren truke jasotako diru-sarrerak adierazi behar dira kontu honetan.***

705. ZUZENEKO FINANTZIAZIOA:

705.1 Osasun-zerbitzuen edo beste erakunde publiko batzuen zuzeneko finantziazioa  
Kudeaketa-autonomiarik gabeko osasun-zerbitzuen eta erakunde publikoen mendeko ospitaleek soilik bete behar dute.

705.2 Aseguru-etxe pribatuen eta lan-istripu eta gaixotasun profesionalen Gizarte Segurantzako mutualitateen zuzeneko finantziazioa  
Honako osasun-zentro hauek soilik bete beharreko atala: 131. mendekotasun funtzionala dutenak (lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateak), 211. mendekotasun funtzionala dutenak (aseguru-etxe pribatuak) eta pazienteen aurrean autoaseguratzailer modura dihardutenak.

706. Beste entitate eta erakunde publiko batzuetakoak

Beste entitate eta erakunde publiko batzuen kontura hitzartutako arreta-zerbitzuen ordainetan —funtzionarioen mutualitateen kontura hitzartutakoak barne— sortu den fakturazioa.

Aurreko ataletan azaldutako irizpideak ezarri behar dira.

709. Zerbitzuak emategatik jasotako beste diru-sarrera batzuk

Bete-bete osasun-arloari ez dagozkion arreta-zerbitzuak emategatik jasotako diru-sarrerak, azpimultzo honetako aurreko kontuetan aintzat hartu ez arren osasun-entresaren jardura arruntaren barnean daudenak.

74. USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntza arruntak dira, alegia, ospitaleak itzuli beharrik izan gabe funtzionamendu-gastuetarako jasotzen duen diru-kopurua. Laguntza horiek administrazio publikoek, enpresek edo partikularrek ematen dituzte, eta haien bidez ustiapen-defizitak finantzatzen dira.

740. Diru-laguntza ofizialak

741. Beste diru-laguntza batzuk

7X. GAINERAKO SALMENTAK ETA DIRU-SARRERAK. 708., 75., 76. eta 77,79. kontuen guztizkoa jaso behar da.

708. Hobariak

Fakturatik kanpoko deskontuak, hobariak eta beherapenak dira, hala nola faktura ordaintzeko laguntzak, bai gizarte-oharpenen bat jaso dutelako, bai arreta-zerbitzuak emateko isileko zein ageriko itunak hitzartuta dituztelako.

75. KUDEAKETAKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Beste azpimultzo batzuetan jaso ez diren diru-sarrerak jaso behar dira atal honetan, ohiz kanpokoak ez badira, betiere.

Hauek sartzen dira:

- Errentamenduaren ordainetan jasotakoak
- Langileei emandako zerbitzuen truke jasotakoak
- Irakaskuntzako edo ikerkuntzako zerbitzuak emateagatik jasotakoak
- Jarduera osagarrien ordainetan jasotakoak
- Beste zerbitzu batzuen ordainetan jasotakoak

76. DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK

Hauek sartzen dira:

- Kapital-partaidetzarengatik jasotako diru-sarrerak
- Errenta finkoko baloreei dagozkien diru-sarrerak
- Epe luzeko kredituengatik jasotako diru-sarrerak
- Epe laburreko kredituengatik jasotako diru-sarrerak
- Erosketak goiz ordaintzeagatik izandako deskontuak
- Balore negoziagarrietan izandako irabaziak
- Truke-alde positiboak
- Beste diru-sarrera finantzario batzuk

77, 79. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

- 77. Ibilgetutik jasotako irabaziak eta ezohiko diru-sarrerak
- 79. Hornigaien soberakinak eta aplikazioak

**T. AZTERGAI DEN URTEAN EGINDAKO INBERTSIOAK**

Atal honetan balio jakin bateko ondasun iraunkorretan izandako gastuak jaso behar dira. Horrela, bada, ekitaldi batean baino gehiagotan erabiltzeko xedez erositako ondasunak hartu behar dira aintzat, hala nola erradiodiagnostikoa egiteko tresnak, ebakuntza-geletako mahaiak, airea girotzeko instalazioak, sukaldeak eta abar. Ez da sartzen, aitzitik, material suntsikorra edo kantitate txikiagotan datorrena, 602. azpikontuan jasoko baita.

Aztergai den urtean inbentario bidez jaso daitezkeen ondasunen edo kapital finkoko ondasunen erosketen balioa adierazi behar da, ordainketa noiz egiten den kontuan hartu gabe.

1. IBILGETU UKIEZINEKO INBERTSIOAK

Aztergai den urtean ondare-elementu ukiezinetan egindako inbertsio guztien balioa jaso behar da —alegia, itxura edo gorputz fisikorik gabeko baina ekonomikoki balioesteko moduko aktibo ez-monetarioetan egindako inbertsioen balioa—.

2. IBILGETU MATERIALEAN EGINDAKO INBERTSIOAK

Ondare-elementu ukigarriak, higigarri zein higiezinak, zenbait ekitalditan erabiltzeko xedez erositakoak.

Horietatik, lursailetan eta ondasun naturaletan egindako inbertsioen atala bereizi behar da.

3. BESTE INBERTSIO BATZUK.

Aurreko partidetan jaso ez diren eta ibilgetuen arloari dagozkion gainerako inbertsio guztiak.



## ERANSKINAK

Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoko (CMBD) CIE 9 MC sailkapenaren arabera usuenak diren prozedura ambulatorioen zerrenda.

### ZIRKULAZIO-APARATUARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
38.59	BEHEKO GORPUTZ-ADARRETA KO BARIZE-ZAINEN LOTURA ETA ERAUZKETA
38.89	BEHEKO GORPUTZ-ADARRETA KO ZAINEN BESTELAKO OKLUSIO KIRURGIKOA
39.27	GILTZURRUNETA KO DIALISIA EGITEKO ARTERIOBENOSTOMIA
38.21	ODOL-HODIKO BIOPSIA
37.80	TAUPADA-MARGAKAILU IRAUNKORRA, HASIERAKOA EDO BESTELAKO SUBSTANTZIA BAT (GAILURIK ZEHAZTU GABE) EZARTZEA

### DIGESTIO-APARATUARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
53.05	IZTAI-ETENAREN KONPONKETA, MENTU EDO PROTESI BIDEZ (BESTE MODURIK ZEHAZTU GABE)
53.00	IZTAI-ETENAREN ALDE BATEKO KONPONKETA (BESTE MODURIK ZEHAZTU GABE)
53.04	ZEHARKAKO IZTAI-ETENAREN KONPONKETA, MENTU EDO PROTESI BIDEZ
53.49	BESTELAKO ZILBOR-HERNIORRAFIA
53.41	ZILBORREKO ETENAREN KONPONKETA, PROTESI BIDEZ
49.46	HEMORROIDEEN ESZISIOA
53.03	ZUZENEKO IZTAI-ETENAREN KONPONKETA, MENTU EDO PROTESI BIDEZ
49.51	UZKIKO EZKER-ALBOKO ESFINTEROTOMIA
49.12	UZKIKO FISTULEKTOMIA
51.23	LANPAROSKOPIA BIDEZKO KOLEZISTEKTOMIA

### HEZUR- ETA MUSKULU-APARATUARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
80.26	BELAUNEKO ARTROSKOPIA
80.6	BELAUNEKO KARTILAGO SEMILUNARRAREN ESZISIOA
77.54	HALLUX VALGUSAREN ESZISIOA
83.39	BESTE EHUN BIGUN BATEKO LESIOAREN ESZISIOA
82.21	ESKUKO TENDOIAREN ZORROKO LESIOAREN ESZISIOA
77.56	MAILU ERAKO BEHAZAREN KONPONKETA
78.67	BERNA-HEZURREAN ETA PERONEAN EZARRIRIKO PROTESIEN ERAUZKETA
77.57	ERPE ERAKO BEHAZAREN KONPONKETA
77.59	BESTELAKO BUNIONEKTOMIA



## TEGUMENTU-APARATUARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
86.3	BESTELAKO ESZISIO LOKALA, EDO LESIOAREN EDO LARRUAZALEKO ZEIN LARRUAZALPEKO EHUNAREN SUNTSIKETA
86.4	LARRUAZALEKO LESIOAREN ERROTOIKO ESZISIOA
86.21	KISTE EDO SINU PILONIDALAREN ESZISIOA
85.21	UGATZEKO LESIOAREN ESZISIO LOKALA
86.11	LARRUAZALAREN ETA LARRUAZALPEKO EHUNAREN BIOPSIA
85.12	UGATZEKO BIOPSIA IREKIA
86.70	PEDIKULU- EDO ZINTZILIKARIO-MENTUA (BESTE MODURIK ZEHAZTU GABE)
86.89	LARRUAZALAREN EDO LARRUAZALPEKO EHUNAREN BESTELAKO KONPONKETA EDO BERRERAKETA
86.74	PEDIKULU- EDO ZINTZILIKARIO-MENTUA BESTE LEKU BATZUETAN FINKATZEA
86.22	ZAURIETAN, INFEKZIOETAN EDO ERREDURETAN HARIZPIAK BEREIZTEA

## GERNU-APARATUARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
58.5	URETRA-ESTENOSIAREN ASKAPENA
57.33	MASKURIAREN BIOPSIA TRANSURETRAL ITXIA

## BELARRIARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
20.01	MIRINGOTOMIA, HODIA TXERTATUZ
19.4	MIRINGOPLASTIA
20.09	BESTELAKO MIRINGOTOMIA
18.79	KANPOKO BELARRIKO BESTELAKO KONPONKETA PLASTIKOA
18.31	KANPOKO BELARRIKO LESIOAREN ERROTOIKO ESZISIOA
19.19	BESTELAKO ESTAPEDEKTOMIA
18.29	KANPOKO BELARRIKO LESIOAREN BESTELAKO ESZISIOA EDO SUNTSIKETA
18.21	SINU PREAURIKULARRAREN ESZISIOA
18.71	BELARRI-HEGALAREN BERRERAKETA

## BEGIARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
13.41	KATARATAREN FAKOEMULTSIFIKAZIOA ETA ASPIRAZIOA
13.71	KATARATA ERAUZTEKO UNEAN BEGI BARNEAN KRISTALINOAREN PROTESIA TXERTATZEA (ALDI BAKARRA)
11.39	PTERIGIOAREN BESTELAKO ESZISIOA
08.20	BETAZALEKO LESIOA EZABATZEA (BESTE MODURIK ZEHAZTU GABE)
13.59	KRISTALINOAREN BESTELAKO ERAUZKETA ESTRAKAPSULARRA
13.19	KRISTALINOAREN BESTELAKO ERAUZKETA INTRAKAPSULARRA
08.22	BETAZALEKO BESTE LESIO TXIKI BATEN ESZISIOA
14.74	BESTELAKO BITREKTOMIA MEKANIKOA

## SISTEMA ENDOKRINOARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
06.2	TIROIDEAREN ALDE BATEKO LOBEKTOMIA
06.7	HODI TIROGLOSOAREN ESZISIOA
06.89	BESTELAKO PARATIROIDEKTOMIA
06.31	TIROIDEKO LESIOAREN ESZISIOA
06.4	ERABATEKO TIRODEKTOMIA
06.39	BESTELAKO TIROIDEKTOMIA PARTZIALA (EZIN DA BESTE KONTZCEPTU BATEN PEAN KODIFIKATU)
06.12	TIROIDE GURUINAREN BESTELAKO BIOPSIA

## ODOL- ETA LINFA-SISTEMARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
40.11	EGITURA LINFATIKOAREN BIOPSIA
40.23	NODULU LINFATIKOAREN ESZISIOA
41.31	HEZUR-MUINAREN BIOPSIA

## NERBIO-SISTEMARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
04.43	KARPOKO TUNELAREN ASKAPENA

## ARNAS SISTEMARI DAGOZKION EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
30.09	LARINGEKO LESIOAREN EDO EHUNAREN BESTELAKO ESZISIOA EDO SUNTSIKETA
31.43	LARINGEKO BIOPSIA ITXIA [ENDOSKOPIKOA]
31.72	TRAKEAKO KANPO-FISTULA IXTEA
31.98	LARINGEKO BESTELAKO EBAKUNTZAK
30.22	AHOTS-KORDEKTOMIA

## EMAKUMEEN SEXU-ORGANOEI DAGOZKIEN EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
68.16	UMETOKIKO BIOPSIA ITXIA
68.29	UMETOKIKO LESIOEN BESTELAKO ESZISIOA EDO SUNTSIKETA
68.12	HISTEROSKOPIA
69.02	ERDITZE EDO ABORTATZE OSTEKO DILATAZIOA ETA LEGRATUA
69.09	BESTELAKO DILATAZIOA ETA LEGRATUA
68.23	ENDOMETRIO-ERAUZKETA
66.29	FALOPIOREN TRONPAREN ALDEBIKO BESTELAKO SUNTSIKETA EDO OKLUSIO ENDOSKOPIKOA
67.32	KAUTERIZAZIOZ UMETOKI-LEPOKO LESIOA SUNTSITZEA
67.2	UMETOKI-LEPOAREN KONIZAZIOA
69.99	UMETOKI-LEPOKO ETA UMETOKIKO BESTELAKO EBAKUNTZAK

## GIZONEN SEXU-ORGANOEI DAGOZKIEN EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
64.0	ERDAINKUNTZA
63.1	KORDOI ESPERMATIKOKO BARIKOZELEAREN ETA HIDROZELEAREN ESZISIOA
64.49	BESTELAKO ZAKIL-KONPONKETA
61.2	HIDROZELE-ESZISIOA (BAGINA-TUNIKAKOA)
62.5	ORKIDOPEXIA

## SUDURREKO, AHOKO ETA FARINGEKO EBAKUNTZAK

Kodea	Prozeduraren azalpena
28.6	AMIGDALEKTOMIARIK GABEKO ADENOIDEKTOMIA
28.3	AMIGDALEKTOMIA, ADENOIDEKTOMIA BARNE
28.2	ADENOIDEKTOMIARIK GABEKO AMIGDALEKTOMIA
24.4	HORTZEN ERAGINEZ BARAILEZURREAN GERTATUTAKO LESIOAREN ESZISIOA
21.61	DIATERMIA EDO KRIOKIRURGIA BIDEZKO TURBINEKTOMIA
21.5	SUDUR-TRENKADAKO SUBMUKOSAREN ERRESEKZIOA